

So.K k 2020-2021
ikuskizuna aurkezten du

NeoK
Neo OrganiK Chemistry



NeoK - Neo Organic Kemistry

Izenburuak, enigmatiko eta bihurri samar ere, galdekatzea pizten du. Baina galdekatzea ez al dago giza jarduera guztien hasieran? Ez al da Unibertsoaren misterioak egindako galdera handiak erantzuteko zientzia nahiz artea edo giza pentsamenduaren beste forma guztiak erantzun bat ematen saiatzen direla? Hemen, « NeoK » en, azken hizkia da keinu bat egiten duena eta pentsamendu magikoaren sakonetatik etorritako euskal aratustearen pertsonaia tradizionala den « Kotilun » engana bidaltzen gaituena. Ikusleari izugarri txikiaren eskalarako bidea emanez Kotilun aniztasun honek materia partikulen antolaketa eredu berria dantza bihurtzen du, « Neo OrganiK Kemistry », hau da bizidunaren kimika berri bat. Hitz-joko formadun izenburu bat beraz fantasiaz, baina ez seriotasunik gabe, dualtasun baten seinale dena: bizidunaren konplexutasunaren aurrean zergatik ez lotu zientzia arrazoibidea eta irakurketa magikoa ?

Hau esanda, gure lanak, kimikaren zientzia eredutan oinarrituta, eskala mikroskopikotan gertatzen diren materiaren eraldaketak gogorarazten ditu. Transformazio hauek batzuetan biziduna, edo agian pentsaduna, dute ondoriotzat. Bilakabide hauetan ustekabeak, menturak eta magiak ere parte hartzen dute.

Lanak, zazpi dantzariantzat idatzia, garaikideko dantzaren baliabide guztietatik hartzen dituen idazkera koreografiko bat erabiltzen du. Hala mugimenduen arintasuna, jestuen zehaztasuna eta hiztegiaren aberastasuna erakusten ditu. Honetarako bereziki sortutako ustekabeko munduak gogorarazten dituen musika ere oinarri hartzen du. Argiek gorputzaren mugimenduekin eta jantzi eta osagarrien berezitasunarekin jolasten dute ikuskizunaren giro bitxia indartzeko.

NeoK, lau eskutara egindako bere laugarren lana, So.K konpainiaren originaltasun handiko ikuskizun bat da non fantasia eta bitxitasuna lehian dabilta, non sakontasunak ez du edertasun formalaren aurrean amore ematen, azkenik, ikuslerengan ezustea, harridura eta mirespena sortzen dituen ikuskizun bat.

Koreografoen oharrak

Inspirazioa

Dantza bizitzarekin lotura hertsia duen senezko iragankor eta ahaltsu arte bat dela sineste sendoak bultzatzen du gure lana. Orainalditan ainguratzen gaituen eta bizirik egoteko sentimenduaz betetzen gaituen emozio iturri eta adierazpena da.

NeoK-Neo OrganiK Kemistry rako bizidunen ezagutza eta bere izaera misteriotsu eta paradoxazkora eramateko beharrezkoa den dena landu nahi izan dugu. Inspirazio iturri bikoitza izan dugu: alde batetik Kotilun Gorri, euskal aratusteko pertsonaia eta beste aldetik infinituki txikiaren eskalan materia antolamendurako zientzia-ereduak. Bizidunera bi hurbiltze, itxuraz kontrakoak, elkarriketan jarri ditugunak elkar mintza daitezen eta elkar erantzun dezaten, elkarri argitzeko. Mundua ulertzeko, berarekin liluratzeko eta munduaren barnean bere izatea txertatzeko, gizakia ez al ditu pentsamendu magikoa eta zientzia erabiltzen? Primo Leviren liburu batek bide honetan adoretu gintuen. Primo Levi, kimikaria nahiz idazlea, 1975.ean *Sistema Periodikoa* idazteko Mendeleïeven sailkapen periodikoz baliatu zen. Eskala mikroskopikotan materia eraldaketa bilakabidez baliatuz, bere bizitzaren gertakariak gogoratzeko, bilduma honetan, 21 ataletako bakoitzean taularen elementu bat berreskuratzen du.

Arrazoibidea

Lankidetzan estuan egindako lau eskuzko idazketa lanak ñabardura estetiko aniztasun handi batek osatutako hizkuntza koreografiko batera eraman gaitu, adierazpen homogeneotasunari etengabe adi.

Agertokian bi unibertso desberdin bizikide izatea nahi izan dugu giro bestelakoak, kontrakoak ere, sortarazten : inkantazio erritualek egitaratutako mundu arkaiko eta tribal baten giro dinamiko eta koloretsuak ; giro sekretuak, misteriotsu eta gure eskalan eskuraezinak, ikusezina baina benetakoa den infinitu txikiarenak, bakarrik zientzia erduei esker irudika ditzakegunak.

NeoK bizitzaren ateetara etengabeko sarrera bikoitzaren koreografiatze bat moduan pentsatu dugu.



So.K konpainia

So.K konpainia 2017.ean *Hatsa* ikuskizunaren hiru koreografoek sortzen dute. Garaikideko dantza eta euskal dantzaren hizkuntzaren arteko topaketatik antzerki jokotik hurbila den ñabardura eta sotiltasunez betetako estetika bat agertzen da, maisutasun teknikoaren haraindian emozio eta ustekabeari leku handia uzten diena.

Hatsatik, errepertorioaren lehenengo lana, So.K konpainiak bide koreografiko berri hau ikertu eta irekitzen du.



Laetitia Cheverry – Koreografoa

Orthezen eta gero Nizan txikitatik dantza klasikoa nahiz garaikidean formatua, 21 urte zituela Frantzia utzi zuen Hego Ameriketan dantzari gisa bere bidea hasteko. Ekuadorreko Garaikideko Dantza Konpainia Nazionalean sartu zen eta berehala Cuencako Ballet Junior delakoaren dantzarien formakuntzaren arduradun izendatu zuten, non bere koreografiekin, zorrotz bezain bihurriek, arrastoa utzi zuten. Ikuskizun Arteko lizentziaduna eta Garaikideko Dantza Estatu Diplomaduna, Frantziara itzuli zen eta Maurice Ravel Euskal Kostaldeko Kontserbatorioan sartu zen. Bere arte esperientzia Chilen jarraitzeko Hegoameriketara itzuli zen non bereziki Claude Brumachonen *Los Ruegos* eta *Folie* aritzean dantza fisikoago eta organikoagoa garatu zituen. Frantziara bueltatu eta gero, 2017.ean, So.K Konpainiaren sorreran parte hartu zuen eta *Hatsa* enigmatikoaren idazkeran lagundu zuen. Txantxa eta bitxikerien artean, So.Kn G.E.S.S – *Gliss Eskola Surf School* – en eta gero *Neok* – *Neo OrganiK Kemistry* – n bere koreografia lana jarraitzen du.

Julien Corbineau – Arte zuzendaria

Txikitatik euskal dantzan nahiz musikan trebatua hainbat instrumenturen praktika garatzen du. Gero formakuntza osagarri ugari jasotzen ditu : dantza klasikoa, garaikideko dantza, antzerkia, edo txotxongiloren diseinu eta manipulazioa. 2005.etik, kale dantza eta txotxongilo konpainiekin izandako topaketak eta elkarlanek bere euskal dantza ikusmolde berria sortarazi dute, beste hizkuntzetatik hartutako maileguekin. Bilboko Kukubiltxo eta Baionako Azikarekin *Izaki* (2006.ean), *Gauzak Biltzen* (2009.ean) eta *Neo Kotilun* (2013.ean) ikuskizunak sortu ditu.

Agregaziodun Fisika irakaslea, 2014.etik euskal dantzarien formakuntzaren egiturari lanean dihardu ere, euskal dantza erdian dantza klasikoa nahiz garaikidean eta antzerkian bermatutako formakuntza proposatzen. Maurice Ravel Euskal Kostaldeko Kontserbatorioan euskal dantza irakaslea izendatua, 2017.ean Nathalie Verspecht eta Laetitia Cheverryrekin *Hatsa* sortzen du eta So.K konpainia gauzatzen du, non bata bestearen ondoko lanak zuzentzen ditu.



Dantzariak

Clara Bessard
Pauline Bonnat
Josu Corbineau
Xalbat Corret
Aintzane Garat-Haira
Garazi Garcia-Palacios
Eva Jullière
Aurélien Labenne
Jon Vernier

Produktzioa

Koreografia : Laetitia Cheverry – Laguntzaile Julien Corbineau
Musika : J.S. Blash – Florent Cheverry
Argiak : Julien Delignières
Jantziak eta osagarriak : Annie Onchalo – Anne-Marie Subias
Argazkiak : Gabrielle Duplantier
Koprodukzioa : CCN Malandain Ballet Biarritz – EKE-ICB

